

# VENDETTA

## FUIMOS, SOMOS Y SEREMOS

ATZO, GAUR ETA BIHAR



**Vendetta** taldeak, 2007an sortu zen Skala-riak taldea desegin ondoren, bere ibilbide arranditsuarekin segituko du disko berriarekin, "*Fuimos, somos y seremos (Atzo, gaur eta bihar)*"; jai giroa ardatz eta etenik gabe euren abestietan. Horrela argiratu zuten 2009an estreinako disko txalotua Javier Etxeberria, Luisillo Kalandraka, Pello Repáraz, Rubén Antón eta Enriko Rubiños Vendetta kideek.

Vendetta taldeak ska musikari rock puntua eta kutsakortasuna eransten dio (Jabier eta Luisillo musikariek hamar urte eman zituzten alde aurretik rock egiten jamaikar erritmoetara egokitu baino lehen). Vendetta taldeak jatorrizko ska soinuak bere erara egokitu ditu eta disko berriarekin dator. Hirugarren lana da baina ez dugu esango esaera zaharragatik, "hirugarrenean balekoa", lehenbiziko diskotik Vendetta taldeak irabazia zuen eta ospea.

Vendetta taldeak Iker Piedrafita musikari eta teknikariarengana joan da eta grabatzeaz gain, El Sotano estudioetan, teklatuak jo ditu. Diskoa hamabi abestikoa da, horietako hiru instrumentalak eta biziki itsaskorrak. Selvak koruak egin ditu disko bitaminiko eta kementsuan. Haize fresko eta giro beroa nahastuta datoz diskoan ska, reggae, country rock eta pop melodikoen zertzeladekin batera. Ahotsak ederki atondu dituzte, Javier eta Pelloren ahotsaz gain, Luisillok aurrekoetan bezala berea ere jarri du. Pellok gero eta indar nabariagoa du taldean eta goraka doan musikaria da urrats sendoekin.

Vendetta boskoteak ska soinuen torluari beste itzuli bat eman dio maila gero eta altuago batera iritsiz. Vendetta taldeak bide berriak irekitzen darrai erabat pausu trinko eta indartsuarekin. Ahotsetan bikain, funts eta berezko sonoritatea, musika ibilbideari ezin hobeto eutsiz. Iragana, oraina eta geroa oparoa baino ez luke izan behar talde honek, egin duena ikusirik, zalantzarik ez. Has dadila saioa.

J. Óscar Beorlegui (2012ko azaroaren 30)

**Vendetta taldeak zer du orain batzeko iragana, oraina eta geroa. Vendetta taldea historia idazten ari da?**

Azken urteotan eginiko bidaia guztietan (Sahara, Suitza, Alemania...), jende askorekin sentimendu berezi batek batzen gintuen. Denok dugu defendatzeko zerbait, borrokatzeko zerbait eta bat egiteko sentimendu bat.

Oso tasun baten parte gara. Alde berean jartzen gaituen batasun internazional bat dago. Honek indarrak batzera bultzatzen gaitu historia eta egungo egoera aztertuz, baina beti ere sortzeko dugun mundu berri bati begira. Horrexegatik; ginen, gara eta izanen gara.

**Vendetta taldea diskoz disko gero eta egokituago ikusten da. Abestien pisuak nabarmen igo dira. Seriotasuna ez du falta baina, batez ere, oihua, poza, barrea nahastuta alderik sentikor eta konprometituarekin. Eman eskua fisikoa eta soziala.**

Gaur egun idazten dugun abesti bakoitzak hausnarketa eta lan izpiritu ikaragarria du atzetik. Abestiak gero eta landuagoak dira eta batak bestearen atzetik entzulearen murgiltzeko eta hauekin bat egiteko gaitasuna dute. Aldi berean Vendettaren betiko esentziak bertan darrai; kritika soziala eta hausnarketa ikuspegi positibotik.

**Vendetta taldeak euskara, gaztelania, ska eta rock... Haize beroa garai hotzetan.**

Etaizkigu inoiz gustatu disko monotonoak. Disko honetan, beti bezala, ska asko dago, rocksteady asko dago, reggae asko dago eta rock asko dago, baina jendeak denetarik aurkituko dugu. Hau da idazterakoan ateratzen zaiguna eta horixe bera da jendeari helarazten dioguna. Inolako filtrorik gabe. Baikortasun eta batasun falta sumatzen den garaiak dira honakoak. Eta horixe bera da guk aberastasun altuko lan honen bidez eskaini nahi duguna.

ritxi aizpuru (2012ko azaroaren 30)

**Javier Etxeberria: gitarra eta ahotsa**

**Pello Reparaz: tronboia eta ahotsa**

**Ruben Anton: Tronpeta eta koruak**

**Enriko Rubiños: bateria eta perkusioa**

**Luisillo Kalandraka: baxua, kontrabaxu, ahotsa**

